

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Espainiako Gerra Zibilaren ezaugarri eta gertaera desberdinak laburbiltzea, ikuspuntu desberdinak kontuan harturik.	1.1. <i>Ikasleak gerra garaiko propaganda posterren fidagarritasuna eta esanahia aztertu du, beraien ideologia eta helburuak emandako informaziotik inferatuz.</i>
2. Espainiako Gerra Zibilak gure familian izan zuen garrantzia aztertzea, elkarrizketa eta testigantzen bidez lortutako informazioa aztertuz.	2.1. <i>Ikasleak gertakari baten inguruko egunkarien berrien analisia egin du, hauen fidagarritasuna aztertuz.</i>
3. Espainiako 2. Errepublika garaiko emakume desberdinen bizitza ezagutzea, hauek gure historian izan duten garrantzia ulertuz.	3.1. <i>Ikasleak Espainiako Gerra Zibilaren inguruan galdeketa egin dio familiako kide bati (batzuei), garai honetan izandako bizipenak lehenengo eskutik jasotzeko asmoz.</i>
4. BMGk utzi zuen egoera politikoa eta ekonomikoa ezagutzea eta honek bi botere handiren arteko gatazka belikoa sortu zuela ulertzea, Gerra Hotza.	4.1. <i>Ikasleak, Gerra Hotza gertatzearen kausak, bandoak eta ezaugarriak identifikatu ditu, informazio iturri desberdinak erabilia (irakurketak, bideoak, etab.).</i>
5. Gerra Hotzaren ondorioak gaur egungo nazioarteko gatazkekin lotzea, kausa-ondorio harremanak identifikatuz.	5.1. <i>Ikasleak gertakari baten inguruko egunkari berrien analisia egin du, hauen fidagarritasuna aztertuz.</i>